

Kanbodiari

BURUZKO

GIDA

DIDAKTIKOA

“Txiroaren beharrak aberatsaren desioen gainerik daude, zapalduen askapena boteretsuen askatasunaren gainerik, baztertuen partehartzea beraiek kanporatzen dituen sistemaren jarraipenaren gainerik”



Gida begiratu gabe erantzuteko lehen galdeketa..

Zer dakizu Kanbodia herriari buruz? Galdera hauek erantzuteko gai al zara?

1. Zein kontinentetan kokatuko zenuke Kanbodia? Ipar, Hego, Ekialde edo Mendebaldean?
2. Kanbodiak 1 / 11 / 52 milioi biztanle ditu.
3. Kanbodiarren oinarri eta eguneroko jakia da...
4. Begira ea Egia edo Faltsua den:
 - Kanbodiako mendiak gure herrikoak baino altuagoak dira
 - Kanbodiako kulturak milaka urte ditu eta antzina inperio handia izan zuen
 - Klima desertikoa da eta urte guztian zehar ia ez du euririk egiten
 - Bertako jendea eskuarki oso azal txurikoa da
 - Mekong ibaiak zeharkatzen du, Afrikako ibairik emaritsuenetako bat
 - Erlijioz budistak dira
5. Bertako hiriburuaren izena:
 - a. Tegucigalpa
 - b. Yakarta
 - c. Singapur
 - d. Phnom Penh

Erantzunak:


1. Asiatiko hego ekialdean

2. 11 milioi biztanle

3. Arroza

4. F/E/F/F/F/E

5. d



Badakizu Kanbodia non dagoen?



Datu geografikoak

Kanbodia Mekong ibaiak zeharkatzen du, Asiako handienetariko batek. Arrantza handia du eta iparraldearekin lotzeko komunikabidea da.

Bere neurri eta aberastasunagatik Tonle Sap lakua aipatu behar da; izena bertatik sortzen den ibaitik dator. Urte sasoiaren arabera uraren norabidea aldatu egiten da eta horixe da bere ezaugarriarik bitxiena: euriteen sasoiaren, urak lakurantz egiten du gora; lehortean, berriz, Mekong-erantz joaten da behera.

Ia ez dago mendirik. Kanbodia lautada zabal bat da.

Kanbodiako hiriburua Phnom Penh da, Mekong eta Tonle Sap ibaien ertzean dago.

Siem Reap bere historiagatik da ezaguna, zeren IX eta XV mendeen artean kanbodiaren inperioaren erdigunea izan zen. Turista asko hurbiltzen da bertako tenpluen handitasun eta ugartasunagatik.



Datu estatistikoak

Kanbodiak 11 milioi biztanle ditu

Kanbodiaren %85a landan bizi da.

○so herrialde gaztea da: Biztanleen %50a 15 urtetik beherakoak da.

Analfabetismoa %40koa da. Gaur egun, 10 haurretatik 4 bakarrik doaz eskolara.


○inarrizko jokia arroz da. Arrantza ere ugaria da, ibaietan arrantzatutakoa edo eurite sasoiaren urpetutako lurraldeetan harrapatutakoa.




Arrantzaleak Tonle Sap lakuaren ertzean.

Ba al dakizu gure herrialdeko analfabetoen indizea zenbatekoa den?

Eta ba al dakizu gure herrialdea Kanbodia baino gazteagoa den?





Angkor: "Kanbodia inperio handi bat zenean ..."

Reth oinez ibili ezin duen 15 urteko mutiko bat da. Gurpil-aulkiari esker mugitzen da. Bere familia Angkor Wat tenplutik oso hurbil bizi da eta oso txiroak dira. Egunero bere anaietako batek tenpluko sarreraraino eramaten du turistei bere aulkitik dirua eskatzeko. Honela bere etxerako laguntza lortuko du eta honekin gurasoek bere anai-arrebak hobeto elika ditzakete.

Kanbodiako kulturak auzokide duen Indiako erroak ditu, nahiz eta kutsu eta izaera berezkoak izan.

IX. mendean kanbodiaren inperioa garatzen hasi zen, baliabide hidrikoei esker eta ureztatze sistemetan lortu zuten trebetasunagatik. Urtean arroz uzta batzuk lortzen zituzten eta soberrakinak hazi egiten ziren.

Inperioa loratu zen eta gaur egungo Vietnam Hegoaldea eta Tailandiaren zati handi bat bereak zituen.

Orduko hiriburua Angkorren zegoen, gaurko Siem Reap.

1453an hiriburua tailandiarren esku erori zen: suntsitu egin zuten, biztanleek ihes egin eta hustuta geratu zen. Oihanak estali egin zuen eta ahaztuta egon zen XIX. mendera arte, frantziarrek birraurkitu zuten arte.

Gaur egun probintzia askotan zehar barreiatutako ehun bat tenplu geratzen dira eremu zabal batean. Tenplu hauek erakargarri dira turistentzat. Ezagunena Angkor Wat da eta monumentu-multzo osoari izen ematen dio. Hinduista da, Visnu-ren oroimenezkoa, kreazioaren jaingo hinduari.




Angkor Wat tenplua.

Zein da zuk ezagutzen duzun gure inguruko monumentu erlijioso garrantzitsuena?

Zein garaitakoa da?

Noren oroimenezkoa?





Herrialdeko erlijioa

Hinayanar budismoa

Kaixo! Nire izena Yim da eta 16 urte ditut. Kanbodian ia gizonetzko guztiek monje budista bezala pasatzen ditugu gutxienez hiru hilabete monastegi batean. Nik bi hilabete daramatzat. Sartzean burua zuritzen dugu askapen seinale gisa, abitu laranja batez jazten gara, oinutsik ibili eta jatekoa kaleetan eskatzen dugu. Monje zaharrek meditazioa eta Budaren doktrina irakasten dizkigute. Bizimodu gogorra egiten dugu eta, batez ere, kontemplazioan gaude. Ez daukagu ezer gurea denik. Batzuk bizitza oso-rako gelditzen dira. Baina gutxi batzuk besterik ez dira. Honelaxe barneratu izan dugu doktrina budista mendeetan zehar.

Budismoa oso zabaldua dago Asian. Budaren, "argiaren" doktrinan oinarritzen da. Buda Jesukristo baino 5 mende lehenago Indian bizi izan zen.

Budismoak Kanbodian Hinayana (bide txikia) izena du eta Sri Lanka, Birmania, Tailandia eta Laos-koaren berdina da.

Budismo mota honen adierazlerik bereziena monjeak dira. Komunitatea (Sangha izeneko) osatzen dute eta tenpluen inguruan bizi dira. Otoitzean aritzen dira eta txirotasunean bizi dira jendeak emandako arropa eta jakiekin.


Kanbodiarrak zeharo erlijiosoak dira. Bizitzaren misterioaren aurrean sentikortasun handia azaltzen dute. Birsortzean sinisten dute eta ekintzen balio erlijiosoan.




Yim beste monje gazte baten ondoan.



Zer sentitzen duzu Yim-en bizitza nolako den entzutean?



Zer iruditzen zaizu kanbodiarrak beren bizitzaren zati bat honelako zerbait egiteko nahi izatea?



Gerra, 1968-1998 urte bitartean

60. hamarkadan hasi zen gerra Vietnam-en. Gerrilla komunistak, Vietcong-ek Vietnameko hegoaldea okupatzeko ahalegi-
nek zabaldu zuten gerra Laos eta Kanbodian.

1968an hasi ziren lehenengo bonbardaketak Kanbodian. 1975 arte jarraitu zuten eta honelaxe hil ziren 10.000 pertso-
na. Hiriburua, Phnom Penh, milioi biztanle izatetik 2 milioi izatera pasatu zen barnealdeko errefuxiatuen etorreragatik.

1975ean gerrilla komunista –"jemer gorria" izena zuena eta Pol Pot-en aginpean
zegoena– egin zen herrialdearekin. Merkatuak, eskolak desagertarazi, familiak
banandu, hiriak hustu, kultura zuten pertsonak erahil zituzten... Beldurraren erregi-
mena ezarri zuten. 1979an 6 milioi kanbodiarratik 1,5 milioi hilak ziren. XX. men-
deko genozidiorik handienetakoa izan da.


1979an vietnamdarrak Kanbodia bereganatu zuten. 1991 arte iraun zuten. 12 urte
hauetan Tailandiako mugetako eremuetan errefuxiatu talde handia azaldu zen. Eta
gerrak jarraitu egin zuen.

Azkenik 1998an gobernuaren aurka zebilen azken taldeak amore eman du. Pol Pot
hil egin da. Gerra amaitu da. Baina bide luze honetan biktima, umezurtz eta ater-
perik gabeko jende asko gelditu da.

*Badakizu zeintzuk
diren une honetan
munduan dauden
gatazka beliko
garrantzitsuenak?*



Tankeak kanbodiako iparraldean.



Minak

Kaixo, Men naiz. Duela gutxi, bizi naizen Angkorreko tenpluetatik oso hurbil, lagun batekin eskolara nindoan. Bidean, nire laguna bidezidorretik piska bat irten eta mina bat zabaldu zuen. Ez dut beste ezer gogoratzen egun hartaz, bakar-bakarrik ikaragarrizko eztanda bat. Nire laguna hil egin zen. Nik eskuineko zangoa galdu nuen. Ezkerrekoa medikuek salbatu zidaten hiru ebakuntza egin eta gero. Orduetik ez dut eskuineko belarririk ere ezer entzuten.

Zer dira minak?

Minak XX. mendean sortutako gerrarako asmakuntzak dira eta ejertzituetako infanteriaren aurrerapena galerazteko erabiltzen dira. Lurrean jartzen dira biktimaren zain. Norbaitek zapaltzen duenean eztanda egiten dute. Minek izua sortzen dute soldaduegan.



Men, Variren ondoan.



Kontuz! Minak!

Gerrak amaitzen direnean, minak –soldadu pazientea balitz bezala– bertan jarraitzen du 50 urte bitartean norbaitek zapaldu eta piztu zain. Biktima berriak zibilak dira, askotan haur edo emakumeak.

Zenbat mina daude egun Kanbodian?

Gaur egun 6tik 10 milioira mina geratzen dira kanbodiarrak lurrazpian.

Zapaltzen dituztenen bi lagunetatik bat hil egiten da.

Gaur 50.000 pertsona daude elbarrituta edo ondorioak dituzte minengatik Kanbodian: 235 biztanleetatik 1, munduko batezbesteko handiena.


Lur asko ezin dira landatu minak bertan daudelako.


Minen salneurria eta desaktibatzea

Minek 1.000 pezeta balio zituzten. Gainera batzutan saldutako armekin batera oparitzen ziren.

Desaktibatzeak 100.000 pezeta balio du. Batzutan desaktibatzaileen bizitza galtzea ere ekar dezake, zeren aldizkako istripuak ezin dira ekidin.

Ba al dakizu gure herrialdean minak produzitzen diren (edo antzina egin duen) eta gaur egun erabiltzen dituen?





Naturaren aberastasuna eta deforestazioa

Arrantza

Herrialde honetako aberastasun handietakoa da, batez ere Tonle Sap lakukoa. Jende asko bizi da arrantzatik. Ibaietan arrain espezie ugari dago. Eurite sasoiaren ostean estalitako arroz landetan ere harrapa daitezke.

Egurra

Oihana betea da, zuhaitz oso altuekin, oso kalitate oneko egurrarekin. Eraikuntzarako orohar material hau erabiltzen dute. Egurrarekin etxeak politak eta freskuak dira.

Azken 30 urteotan Kanbodiako basoak herrialdeko azaleraren %70 izatetik %30 izateraino jaitsi dira. Jatorrizko basoaren %90 galdu du eta geratzen denaren %100 mehatxupean dago.

Gerrilak okupatuta zuen eremuko egurra salduz lortu du dirua eta armak erosi ditu.

Deforestazio arriskua oso larria da. Gobernuak egur enpresen ekintzak gelditu nahi ditu, baina industria honetan oinarritutako interes ekonomikoak oso handiak dira.


**Ba al dakizu zure etxeko
altzarien egurraren jatorria
zein den?**

**Konturatzen al zara
hemen erosten
dugunaren arabera
beste herrialdeen
deforestazioa bultzatzen
ari garela?**

**Zer dakizu "kontsumo
arduratsua" eta "bidezko
merkataritza"
delakoari buruz?**



Langileak zuhaitz zuritzen.



Hiria eta landa

Hiria hutsik geratu zen Pol Poten garaian. 1979an, izuaren erregimen hura bukatu zenean, antzina bertan bizi ziren batzuk itzultzen hasi ziren, poliki-poliki.

Gaur egun hiria jende, bizikleta, moto eta autoz beteriko lekua da. Merkatu asko daude, haurrak normaltasunez doaz eskolara eta jendea iluntzean paseatzera irteten da kalera.

Phnom Penh-en inguruan industriak hazten ari dira. Gehienak atzerrikoak dira. Bertako produktuak beste herrialde batzutan saltzen dira, bertako merkatua oso txikia delako. Oso baldintza txarrak dituzte lanerako. Igandean ez da atsedetik hartzen, oporrik ere ez eta lanerako segurtasuna oso txikia da. Gutxi irabazten dute (6000 pezeta gutxi gora-behera hileko) eta ohikoa da eguneko 10 ordu lan egitea.

Landa. Kanbodiarren gehiengoa landan bizi da.

Oinarrizko landaketa arroz da, baina barazkiak eta fruta ere landatzen dituzte ura ugaria den lekuetan. Arrozaren landaketan familia guztia aritzen da, oso lan gogorra baita. Seme-alaba gazteenak ere bai.

Landako ekonomia biziraupeneko da. Lantzen duten arroz da urte guztian zehar jango dutena. Batzutan diru sarre-
ra gehigarria lortzen dute bestelako produktuak salduz.

Landan bizi diren haurretzat zailagoa da eskolara joatea. Duela gutxi-rarte gatazka armatuak bizi izan dituzten eremuetan oraindik ez dago eskolarik. Beste askorentzat oro urruti dago edo ez dago irakaslerik. Hezkuntza oso eskasa da.

Irakasleek hilean 2000 pezeta irabazten dituzte. Hauetako gehienak lehen mailako ikasketak dituzte. Ikasleen %50 bakarrik iristen da 5. mailara.




Emakumeak landan.




Phnom Penh, Kanbodiako hiriburua, iluntzean.

*Ezagutzen al duzu
gure herrialdeko
industrian lan egiten
dutenen hegoera?*

*Saia zaitetz lan orduak
eta soldatak alderatzen*





Dantzak

Nire izena Bopha da. Gerra garaian nire familiak Tailandiara aldegin zuen errefuxiatu eremuetara. Ni han jaio nintzen. Ezin ginen bertatik irten. Bizimodua gogorra zen. Baina txikitatik nire gurasoen kanbodiarrak dantza tradizionala dantzatzeko irakatsi zidaten, beste haur batzuekin batera. Ordutik izugarri atsegin dut dantzatzea. Honela lortu dugu bestela galduko zen mendetako tradizioa gordetzea.

Kanbodian dantza izan da adierazpide artistiko tradizionala. Dantzariak errege-erreginenak izan dira eta errege-jau-regiari eta handitasunari atxikitako dantza eskola zuten.

Pol Poten diktaduraren garaian eta vietnamiarren okupaziopean dantza kanbodiarrak desagertu egin ziren.

1a milioi bat kanbodiarrak muga tailandiarretatik aberriratu zirenean herri berean jarri ziren bizitzen, Prey Sam Raong. Han, denbora luze eta lan handiaren ondoren, dantzari harrobi bat sortzea lortu dute eta honela piskanaka-piskanaka dantza tradizional asko berreskuratzen ari dira.

Dantzak eguneroko bizimodua erakusten dute: arrantza, arroz landaketa, maitasuna... era berean minetako dantza bezalakoak sartu dituzte, honela bizitako sufrimendu eta minarik gabeko etorkizuna isladatzen dituzte.




Bopha dantzariz jantzita.

Ezagutzen al duzu gure herrialdeko dantza tradizionalik?

**Nola izena du?
Ba al dakizu zer adierazten duen?**





Emakume kanbodiarrak

Mom-ek diosku: "Emakume kanbodiarrak gazte ezkontzen dira eta haur asko izaten dituzte, batzutan, beraien gogoz kontra. Oso samur eta maitagarriak dira, abegitsuak. Etxeko lan guztiak egiten dituzte eta landetako lanetan ere laguntzen dute. Oso azkar zahartzen dira, baina barrea eta umorea ez dituzte galtzen..."

Kanbodiarentzat bizitza zaila baldin bada, emakumeentzat are gehiago.

Egia da gizonen aldean emakume gehiago dagoela, soldadu asko hil zirelako gerra urte latzetan. Baina emakumeek hartu zuten bere gain familia, seme-alabak, etxea, agureren bat edo beste eta bakardadearen pisua. Gainera, gizonak mina batek ezindua gertatzen ba da, emaztea ondoan izango du. Emakumea, ordea, zauritzen badu minak, senarra etxetik alde egingo du seguraski.

Gure herrialdean ia emakumerik ez da hiltzen erditzean. Hala ere, Kanbodian ohikoa da. Batzutan hemorragiengatik hiltzen dira, bestetan infekzioengatik, edo hain sarri ematen diren malaria edo tuberkulosiak eragindako ahuldadeengatik. Sakonean mediku zainketa modernorik ez izateagatik gertatzen dira.



Mom, arrosa lantzen.


Emakumeen trafiko eta prostituzioa dira gorantz doazen bi arazo. Izugarri hazi dira "turismo sexuala" eta pobreziarengatik. Emakume hauek tratu txarrak jasaten dituzte eta bizi baldintza krudelpean bizi dira. %40 dira HIESaren birusarekin kutsatuta daudenak. %35 adin txikikoak dira, batzuk 10 edo 12 urteko haurrak dira.


Emakumeek etxean jasaten duten indarkeria ere oso zabaldua dago. 6 emakumetatik 1ek jasan duela adierazten du.

Emakumeen erdiak baino ez daki irakurtzen eta idazten, gizonen %80aren antzera.

Zer iruditzen zaizkizu datu hauek?

Zer sentitzen duzu hauek entzutean?





"Zerbitzu Jesuita"

Itzul al dezakezu testu hau? Zerbitzu Jesuitaren memoria bateko gainazalean dago: "The needs of the poor take priority over of the rich, the freedom of the dominated over the liberty of the powerful, the participation of marginalized groups over the preservation of an order that excludes them".

Zerbitzu Jesuita Jesusen Konpainiaren Gobernuz Kanpoko Erakundea (GKE) da, Kanbodian ari da lanean eta herrialdearen adiskidetze eta garapenaren alde ari da proiektu ugarien bitartez.

Banteay Priebeko eskola hiriburutik 30 kilometrotara dago. Han gutxitu fisikoentzako (mutil eta neskentzako) lanbide heziketako eskola dago. 18 urtez gorako 80 bat ikasle dira eta urte batean zehar bertan ikasten dute aurrerago beren familiei lagundu ahal izateko.

Ematen diren espezialitateak zurgintza, mekanika, ehungintza, elektronika, eskultura eta joskintza dira. Ia irakasle gehienak ere elbarriak dira, hauek klaseak emateaz gain ikasleei beren buruan konfidantza izan dezaten laguntzen diete.

En el mismo Banteay Prieb existe un taller de sillas de ruedas para discapacitados. Se producen unas 900 al año que se distribuyen por las aldeas del país.

Banteay Prieb bertan ere ezinduentzat aulki gurpildunen tailerra ere badago. Urtean 900 bat egiten dira eta herrialde osoko herrisketan banatzen dira.


Landa garapenerako proiektu bat ere badago; honen bitartez 250 bat herrisketan beren baliabideak hobeto erabil ditzaten laguntzen da. Era berean putzu, errepede eta zubiak eraikitzen dira garraioa errazteko.

Bertako desplazatuekin ere lan egiten da, hauek asko dira horrenbeste gerra eta enfrentamentu armatuengatik. Orain desplazatu talde hauen jarraipen egiten da.



Banteay Prieb-eko eskultura taldea.

Ezagutzen al duzu zure inguruko GKErik eta ba al dakizu zertan aritzen diren?



Itxaropen izpia

Kaixo, nire izena Soni da. Ezindua naiz, beraz aulki gurpildunean mugitzen naiz. Hiru urte nituela gaisotu egin nintzen, oso sukhar handiarekin. Poliometitisa harrapatu nuen, gaixotasun gainditua herrialde garatuetan. Orduz gero ezin izan dut oinez ibili. Urte luzeetan etxean geratu behar izan nuen, lurreean arrastaka, nire amari sukaldean laguntzen, nire anai-arrebak eskolatik etorri zain. Hamabi urte bete nituenean nire aita Bantey Priebera joan zen eta han eman zioten nire lehen gurpil-aulkia. Ordudunik nire bizitza ikaragarri aldatu da. Eskolara joaten naiz, beste neska-mutikoeekin ikasten dut. Lagunak ditut. Toki askotara joan naiteke askatasun osoz. Inoiz ez nuen uste izango nire bizitza horrela aldatuko zenik.

Kanbodia zauritua, puskatua eta sufrimenduz bete den herria bada ere, itxaropenari ateak irekitako herrialdea da:

Herrialde bateko aberastasun handiena bere jendea da, zailtasunei aurre egiteko ahalmena eta aurreraka joateko nahia, Sonik adierazten digun bezala.

Kanbodiak itxaropena eta argia ezagutu berri ditu: haurrengan, hauen barreetan, bizitzaren indarrean. Estatistika eta historiari aurre egiten diena. Bizitza horretan datza etorkizun alaiago eta osoago baten promesa.




Soni, anaiarreba eta lehenguzuen ondoan.

Irakurri “Kanbodiako konpasioaren otoitza”.


Nola ulertzen duzu zuk “Sufrimendu honetatik konpasio handia sortzen da” esaldia?





Zer ikasi duzu Kanbodiari buruz?


1. Kanbodia zeharkatzen duen ibairik garrantzikoena aipatuko al zenuke?
2. "Kanbodiako biztanlegoa oso gaztea da. Jendearen %50a hamabost urte-
tik beherakoa da". Egia ala Gezurra?
3. Monumentu hauetatik, zein dago Kanbodian?
 - a. Tah Mahal
 - b. Borobudur Tenplua
 - c. Ming dinastiaren Jauregia
 - d. Angkor Wat
4. Zein da Kanbodiako erlijiorik garrantzitsuena?
5. Zein da 1975an boterea eskuratu zuen gerrilla komunistaren buruzagia-
ren izena?
 - a. Ho Chi Minh
 - b. Pol Pot
 - c. Che Guevara
 - d. Mao Tse Tung
6. Zenbat urte egoten dira minak estanda egiteko prest lurpean?
 - a. 2 urte
 - b. 10 urte
 - c. 50 urte
 - d. 150 urte
7. Zerez daude eginda kanbodiako etxeak?
8. Zenbat kobratzen du hilero kanbodiako irakasle batek?
9. "Banteay Prieb eskolaren irakasle gehiena ezindua da" Egia ala Gezurra?
10. Zertan datza Kanbodiako itxaropena?



Kanbodiako konpasioaren otoitza:

Kanbodiako sufrimendua izugarria izan da
Sufrimendu honetatik konpasio handia sortzen da
Konpasio handitik pakezko bihotza sortzen da
Pakezko bihotzetik pakezko pertsona sortzen da
Pakezko pertsonatik pakezko familia sortzen da
Pakezko familiatik pakezko komunitatea sortzen da
Pakezko komunitatetik pakezko nazioa sortzen da
Pakezko naziotik pakezko mundua sortzen da
Munduko izaki guztiak pakean eta alai bizi daitezela!





Alboan

BILBAO

Padre Lojendio, 2, 2. • C.P. 48008
Tel/Fax: 944 15 35 92
e-mail: alboanbi@alboan.org

PAMPLONA

C/ Bergamín, 32 • C.P. 31004
Tel/Fax: 948 23 13 02
e-mail: alboanna@alboan.org